



"B.B.B.B."

J. A. LOIDI BIZKARRONDO

Gure zorioneko AUTOPISTA jarri digute aurtengo gaitzat gure «OARSO»-ko agintariak.

Idazle asko izango dira noski, «autopista» dalako onen izatez, balioz, eraikitzez, edertasunez, irabaztez, irriskuz, inguru-minguruz, ongaitzez eta abarrez jardungo diranak, bai euskeraz, bai erderaz, dala txantxetan, dala benetan.

Nik ere, aurreratu diguten gai ori aintzakotzat artu ta, erdi txantxetan, ez bere izatez, baizik eta, bere izenaz saio bat egingo dut.

«Dan» guziak baduela bere izena (berea aztu zitzaion astoaz kanpo), diote batzuek; eta «izena» duen guzia, izan beintzat, badala diote besteak (sorgiñak dirala berru).

Bidea egin dute; «autopista» edo dalakoa badugu... ergo!, ortaz, izena bear du. Gazteleraz «Autopista» dio-

te, frantzeraz «Autoroute», eta besteak «Autobahn», «Motorway», «Autoweg», «Autostrada», «Autosnelweg», «Autovojo», eta abar. Eta... euskeraz? Nola izendatu bear dugu euskeraz?

Orain artekoa, beste ainbestetan bezala, errez izan da, ta gerorako ere bere ortan geratuko ote dan beldur naiz: «autopista» ego aldekoak alegia, ta «otorruta» iparraldekoak. Eta... gure euskera gaixoaren batasuna?... Norbaitek esango duena: «alegra gaitezen, zeren, azken finean, sikiera, sur-parteko populoo baskongaduaren berbia ari da unifikatzen (gaztelanuakin jakiña!), eta nortepartekoak fratzesekin, eta... tira!» Noizbait batuko gera guziok...

Utzi ditzagun oraingoz buruauste oek eta eman dezaigun bideen izenai begiratxo bat.

Ikus dezagun, asteko, «autopista», itxura gabeko izen sasikume onen jatorria. Bere lenengo zatia «Auto-»,

gerkerazko «autos» dalakoetik dator eta, izkuntza askotan aurrizki bezala parra-parra darabilkitela, alako «noreretasun» bat adierazten du: «autoclave» = «berez isten dana» (naiz eta «giltzez» = «clavis», itxi ez), «autopisia» = «nork bere burua ikustea» (il da gero alajaiña!), «autoctono» = «bere errikoa dana», «autónomo» = «bere legepean dagoena», eta abar... geienak gezurrak badira ere. Eta berdin, orain 60 edo 70 urte jaio zan «automóvil» = «berez dabillena» ere. Eta, ain xuxen ere, «automóvil» dalako onen zati edo laburpena da, aurrizki antzera, gure «autopistak» daramana. «Aurrizki» au itz berri askotan azaltzen da orain: «autocamión», «automovilista», «autoescuela», «autotransporte», «autocar», «autodromo», «auto-stop»... Eta baita, bere «ómnibus» (=«guziontzat») dalakoen «-bus», atzizki biurtu dan («ferrobús», «aerobús», «bibliobús», «trolebús»...), buztan farragarria beregan daraman, eta ez buru ta ez zango dan, dalako «autobús» ortan ere.

Ikus dezagun bere bigarren zatia: «-pista». Onek bere jatorria latiñetiko «*pistum*», «*pinsere*» edo «*pistare*» (=«txikitu», «zapaldu», «oinpetu»...) dalakoetan edo, dauka bearbada, italiarren «*pista*»-ren bitartez. (Ez aztu an jaio zirala «autopistak»: Milan-etik Como-ra egin zan lenengoa 1.924-garren urtean).

Ortaz, «*autopista*», itzez-itzez eta esanaiaeren-esanaiez euskeratuko bagendu, onelatsu esan bearko genuke: «berez zanpatua» (gure «zanpakaminuak», jakiña!), «berez txikitua», «berez oinperatua»... Baiña au ez da zuzen jokatzera. Obeto litzake «automobilentzat zapaldua» esatea. «*Pista*», zerbaitetarako zapaltzen, berdintzen eta eratzen dan lur bati deitzen zaio: «pista de tenis», «pista de baile», «pista de aterrizaje», «pista de circo»... Bestalde, «Diccionario de la Real Academia de la Lengua Española» dalakoak dionez, «*pista*», beste gauza askoren artean, aldian-aldiko edo bein-beingo, irikitzen dan «bide» alako bat da. Gure mendi ta baso guzien barrena, jo ta ke, irikitzen ari diran erdi-gurdibide oek, ederki asko ezagutzen dituzte gure «piñuzko» arizti ta pagadiak, gure «piñuzko» zumardi ta makaldiak, gure «piñuzko» artadi ta lizardiak, ebakitzen ibiltzen diran «aizkorarik gabeko» aizkolariak...

Ikus dezagun frantzesena: «*auto-route*» idatzi ta «otójut» edo esaten dutena. Emen ere, lenengo zatia, leen ikusi dugun gerkerazko «autos» bera dugu iturburu. Bigarren zatiaren sorrera xeblearegoa dugu. Orko «-route» dalako ori, dirudienez, azken aldeko latinetik dator. Orduan, garai artan, «*via-rupta*» deitzen omen zioten «basoan irikitako bidea» zanari. Eta, berez, «puskatua» esan nai duen «*rupta*» ortatik sortu zan frantzesen «*route*», eta ontatik gaztelerazko «*ruta*».

Lengoak «txikitua», oek «puskatua»... gure auzoko izkuntza indartsu ta aberats oien biurrikeri ta ondamedi polita!...

Italiarrak eta beste askok (dinamarkatarrak, eta abar), ontan polikiago jokatu dute. Oek «*Autostrada*»

diote. Emen ere, lengo «*Auto-*» bera dugu. Bigarren zatia, «-*strada*», latiñetiko «*strata*» = «arrizko bide»-tik dator. Egia da, autopistaren lurra ez dala arri utsezkoa izaten, baiña... tira! Or nonbait.

Inglaterra-koak, «*Motorway*» deitzen diote. Emen «*Motor-*», latiñetiko «*motor*» = «eragille, erabiltzaille» agertzen da. Eta bestetik, «*way*», ingeleraz, «bide» da.

Eta berdin holandatarren «*Autoweg*» («*weg*» = «bide»), eta «*Autosnelweg*» («*snel*» = «azkar», eta «*weg*» = «bide»).

Ikusten dugunez, geientzuak, beribillaren, automobillaren lenengo zati ori artzen dute aurrizki bezala, eta bigarren zatia, «bidea» adierazi nai duen zerbait. Due-nak duena!... Berdin egin dute arauz, artifizialki, sortu-tako esperanto, izkuntza berrian: «*Autovojo*» («*vojo*» = «bide»).

Oek ikusi ondoren, ez dirudi onartu-eziña danik, euskeraz, «*beribil-bide*» edo «*auto-bide*» esatea. Onela, euskera garbituaz gaiñera, ifar eta ego aldekoak batera joango giñake. Norbaitek esan ere esango du, «beribil-bide» onek, ain zuzen ere, «camino de automóviles» esan nai duela alegia, eta ori egi osoa da. Baiña, beste izkuntzetan ere, orrelakoak gertatzen dira. Gu, euskaldunok, izan bear al dugu beti, besteak bereizten ez dutena bereizi bear dugunok?... Erderazko «ascensor» euskeratzeko, «jasogailu» norbaitek aurreratuta sortu zanean ere, izan ziran, «jasogailu» ori ez zala jasotzeko bakarrik egindako tresna, esaten zutenak; baizik eta, orain esango lut kean bezala «desjasotzeko» ere erabiltzen zala, ta, jikiña!, ez zuela euskal-izen orrek tresna ori izendatzeko balio; ez zala ortarako gauza; ez zala ortarako gai. Nonbait erderazkoak, bietako balio zuten... Betiko leloa!...

Eta ez uste izan, euskeraz, era bateko ta besteko «bideak», bear bezala bereizteko, «bide» izenez urri gabiltzanik.

Ona emen batzuek:

«*bide*» = «camino»

«*erribide*» = «camino vecinal»

«*errege-bide*» = «carretera»

(errenderiar zaarrentzat, Irun-go Katea-tik, Oiartzun eta Astigarraga barrena dijoan bidea da «errege-bidea». Ori izan zan emengo lenengo «carretera»)

«*Oin-bide*» = «camino de peatones»

«*abelbide*» = «camino de rebaños, cañada»

«*basabide*» = «camino malo»

«*ardibide*» = «camino ovejero»

«*gorputz-bide*» = «camino funerario»

«*erri-bide*» = «camino público»

(oetaz, gure baserritarrak, asko dakite: iñork ez du bere lurretan bide-zorrik izan nai)

«*mandobide*» = «camino de mulas»

«*gurpbide*» = «camino carritel, carruna»

- «*zearbide*» = «travesía, camino tortuoso»
- «*alzubide*» = «camino ovejero»
- «*gurdibide*» = «camino de carros»
- «*zaldibide*» = «camino de caballerías, camino de herradura»
- «*larrabide*» = «camino de pradera»
- «*lerabide*» = «camino de narrias»

(eta, erderazko «*narria*» au, Corominas-ek «Voz emparentada con el vasco «*nar*» o «*narra*» = «arrastre, trineo» de origen prerromano» esaten badu ere, beste askok, «Diccionario de la Real Academia de la Lengua Española»-tik asita, «*narria*», del vasco «*narria*», esaten dute beldur askorik gabe. Gu gerok ere prerromanoak gera ta...)

- «*bideska*» = «sendero, atajo, caminito»
- «*marrabide*» = «camino en zig-zag»
- «*mandabide*» = «camino abrupto»
- «*bidezior*» = «sendero»
- «*arposu*» = «camino de vado con piedras»
- «*estrata*» = «vericuetu»

(«*estrata*» dalako au latiniertiko izen beretik dator, leen «autostrada»-z jardun geranean ikusi dugun bezela. Eta aspalditik artua noski!).

- «*gerenda*» = «camino estrecho entre piedras»
- «*zamalbide*» = «camino de acémilas, de caballerías»
- «*urbide*» = «acueducto»
- «*auzo-bide*» = «camino vecinal»
- «*urbilbide*» = «atajo»
- «*kale, karrika*» = «calle»
- «*zuaitz-bide*» = «bulevar»

(«*bulevar*» dalako au, neederlandarren «*bolweg*» = «egurrez egiña» dalakoetik dator)

- «*ibil-bide*» = «vía de comunicación, avenida»
- «*ibai-bide*» = «vía fluvial»
- «*legor-bide*» = «vía terrestre»
- «*itxas-bide*» = «vía marítima»
- «*tren-bide*» = «ferrocarril»
- «*burni-bide*» = «ferrocarril»

(izen au gaizki osatua dago. Dagoen bezala, burnia bate-tik bestera erabiltzeko bidea adierazten du).

- «*izkutu-bide*» = «camino reservado, privado»
- «*gurutze-bide*» = «calvario»
- «*arbide*» = «calzada»
- «*galtzara*» = «camino empedrado»

(«*galtzara*» au beste izkuntzetako «*calzada*» bezala, latinetik dator: «*calx, -cis*» = «kare-aitz», -«kare-arria» erabiltzen zalako erromatarren «*kalzadak*» egiten, edo ta «*calx, -cis*» = «zango-aztal», -«oinpetutako» bidea adierazi naian agia-.)

- «*meaka*» = «desfiladero»
- «*mantzi*» = «camino angosto, lodoso»
- «*narra-bide*» = «arrastradero»

Eta abar, eta abar...

Eta, oek danak gutxi badira, ona emen beste amai-katxo: «*ibilpide*», «*lurbide*», «*aire-bide*», «*bide-itsu*», «*iragan-bide*», «*inda*», «*ibilgune*», «*iragaitz*», «*uri-bide*», «*ostail-bide*», «*ibiltegi*», «*zidor*», «*xendra*», «*zirku*», «*estratza*», «*estreka*», «*estarta*», «*malkar*», «*txur*», «*zokomoko*», «*bide-laster*», «*bidets*», «*bidexe*», «*bidezador*», «*egur-bide*», «*bide-zingor*», «*bide-zurku*», «*sailpide*», «*orga-bide*», «*bide-zabal*», «*bidandi*», «*bide-arantea*», «*bazter-bide*», «*estarte*», «*galbide*», «*lorbide*», «*trankontzi*», «*bide-malkar*», «*zurrunbide*», «*anda-bide*», «*zirga-bide*», «*ostobide*», eta abar, eta abar, eta abar...

Eta, izenez ari naizen ezkerro, eta nere bizi-lagun irundarrak aserretu ez ditezen, galderatxo bat egingo nuke; zergatik diote «Autopista Bilbao-Behobia», eta ez «Bilbao-Irún»?... Ez al da Beobia Irun-go auzo bat?... «Autopista B-B» jarri nai bazuten, zergatik ez «Basauri-Behobia» adibidez?... Ala «Bilbao-Baiona» dugu?

Gogoratzen naiz orain bi urte edo, Gipuzkoa-ko beribillari beren matrikulan «S.S.» jarri bear zitzaio-laka ta «GP» jarri bear zitzaio-la, sortu zan eztabaida. Danetik esan zan borroka bizi artan. Baiña, farragure aundiena eman zidan arrazoia, auxe izan zan: mundu guzian alegia, «San Sebastián» —en izena, «Guipúzcoa» — rena baiño askoz ezagunagoa zala, eta orregatik, (orregatik, alajaña!... , Gipuzkoa, Gipuzkoa izan-arren, obe zala «S.S.» jartzea. Orra errenderiarrok, gipuzkoarrak izan bearrean, «San Sebastián-darrak» biurtu!... To!!...

Orain bururatzen zait alegia, izan ere izan, badite-keala «Autopista B. B.» jarri zutenak ere, beste dala-ko, ospe aundiko «B.B.» bat (Brigitte Bardot alegia...), Bilbo ta Irun, Beobia ta Baiona, laurak batera baiño «ezagunagoa» zalako jarri izatea...

Baiña, nere aldetik, erakusbide onak eman naian («bideak» oek ere!...), Bidaso-z gain azkeneko zubia irikiaz, egun oetantxe osatuko dan «Autopista Bilbao-Behobia», euskeraz,

«BERIBIL-BIDE BILBO-BAIONA», «B.B.B.B.»

biurtu dedin eta, era berean, guziok batu gaitzan, nere izena baiño Shakespearena, mundu zabalean barrena, pittinka bat ezagunagoa izan-arren, bere izena utzi ta, apal-apalki, nere izen txoil-txoillez izenpetuko dut.